# 2.

## Jarraipen Txostena
## I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda




Agenda Euskadi Basque Country 2030

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# AURKIBIDEA




**Jarraipen Txostena**
**I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda**
2018. urtea

# Agenda Euskadi Basque Country 2030

Euskadik bere egiten du Nazio Batuen 2030rako Agendaren erronka globala, Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartzearen bidez. Gure lurralderako ekintza-plan bat da, euskal eredu gisa planteatzen dena bai hazkunderako eta bai gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ongizaterako; funtsezko zerbitzuak pertsona guztiei bermatzeko konpromisoa hartzen du, eta baita kalitate handiagoko enplegu aukerak sortzen dituen hazkunde jasangarritasunaren aldeko konpromisoa ere.

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda 2017-2020 aldian garatzen da, hau da, EAEko XI. Legegintzaldiaren Gobernu Programaren indarraldi berbera du, eta islatzen du noraino datozen bat programa hori eta beraren garapenera zuzendutako politika sektorialak Garapen Jasangarriaren 17 Helburuekin (GJH) lotutako helburu eta helmugekin, horien aldeko ekarpena islatzeaz batera. Era horretan, 2030 Agendaren espirituari erantzuten diogu, kontuan hartuta GJHak ez direla sortu zer egin behar dugun esateko, baizik eta lehentasunak ezartzen laguntzen digun testuinguru unibertsal bat definitzeko, gure lurralde-errealitatea kontuan hartuta.

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda agenda egokigarri gisa landu da, hau da, egokitu egin daiteke beraren jarraipen eta ebaluazioaren ondorioz. Horregatik ezarri da jarraipen txosten bat egingo dela urtean, gobernantza-tresna eta –bide propioak erabiliz, beraren bitartez jasotzeko zer ekarpen egiten dien Euskadik 2030 Agendaren GJHak lortzeko xedez mundu mailan egiten diren ahaleginei eta lanari. Halaber, txostena izango da NBEren Garapen Jasangarriaren Helburuen aurrerapenari buruzko urteko txostenari Euskadik egiten dion ekarpena.

## JARRAIPEN TXOSTENA
## I. EUSKADI BASQUE COUNTRY
## 2030 AGENDA

# 2018 ZENBAKITAN




**15**
15 HERRIALDE-HELBURU

**17**
GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURU

| **100** | **93** | **80** | **19** | **50** |
|---|---|---|---|---|
| HELMUGA | KONPROMISO | PLANGINTZA-TRESNA | EKIMEN LEGEGILE | ADIERAZLE |

**2017. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| **100** | **93** | **56** | **6** | **50** |
|---|---|---|---|---|
| EKINTZA ESANGURATSUAK | KONPROMISO | PLANGINTZA-TRESNA | EKIMEN LEGEGILE | ADIERAZLE |

**2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| **100** | **93** | **66** | **16** | **50** |
|---|---|---|---|---|
| EKINTZA ESANGURATSUAK | KONPROMISO | PLANGINTZA-TRESNA | EKIMEN LEGEGILE | ADIERAZLE* |

Jarraian, 2018 urtean Garapen Jasangarriaren Helburu bakoitzaren inguruan egindako esku-hartze garrantzitsuenen **LABURPEN EXEKUTIBOA** aurkezten da.

Jarraipen txostena eskura dezakezu esteka honen bitartez:
www.euskadi.eus/agenda-2030/jarraipena-2018

*Adierazleen bilketaren datazioan askotariko datak agertzen dira, adierazle bakoitzaren betekizun teknikoak eta erakunde estatistikoen lantze-prozesuak kontuan hartzen dituelako.

# 1. HELBURUA



## Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | 2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK | |
|---|---|---|---|
| HELMUGAK | 6 | JARDUERAK | 6 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 3 | PLANGINTZA-TRESNAK | 2 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 | EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Pobrezia ekonomikoaren indizea (Arope) | (2017) % 9,7 |
| • Pobrezia materialaren indizea (Arope) | (2017) % 3,7 |
| • Lan-intentsitate txikiko familia-unitateak (Arope) | (2017) % 7,7 |

| Euskadi Basque Country 2030 Agenda | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **1. Helmuga.** Pobrezia-egoerei erantzutea eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzearen alde eginez eta gizarte-bazterketako egoeren kronifikazioa eragotziz.<br>**2. Helmuga.** Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatzea, gehien behar dituzten pertsonen eskura iritsi daitezen, instituzioen arteko lankidetza eta datuen interkonexioa bultzatuz. | **126** | Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatu. |

- **1. Jarduera.** Desgaitasuna duten pertsonen lan munduratzea enplegu zentro berezietan sustatzeko diru laguntza publikoak. 42 M€.
- **2. Jarduera.** Lanbide erreformatu eta modernizatzeko proposamena lantzea, besteak beste, prestazioen kudeaketako hobekuntzak kontuan hartuz.

| | | |
|---|---|---|
| **3. Helmuga.** Gizarte-larrialdietarako Laguntzak bermatzea, pobrezia energetikoa barne sartuta. | **130**<br>**131** | Gizarte-larrialdiko Laguntzak bermatu.<br>Pobrezia energetikoari aurre egin. |

- **3. Jarduera.** 23 M€-ko partida, gizarte larrialdiko egoerei kasu egiteko, pobrezia energetikoa barne, eta 0,4 M€-ko partida, Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen pobrezia energetikoko egoeretarako.

| | | |
|---|---|---|
| **4. Helmuga.** Etxerik gabeko pertsonei arreta eskaintzea. | **132** | Etxegabeak artatu. |

- **4. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzaren (Etxebizitza Saila) eta EAEko 3 hiriburuen arteko elkarlana, udalerri handietan gaua kalean pasatzen duten pertsonen kopurua gutxienez % 20 murrizteko, eta etxebizitza aukerak ikusteko.

| | | |
|---|---|---|
| **5. Helmuga.** Adostasun zabaleko gizarte-itun bat sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantziazioa sendotzeko eta haren iraupena bermatzeko. | **129** | Gizarte-zerbitzuen sistema finkatu eta indartu. |

- **5. Jarduera.** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema finkatzea, aldundien edo udalen eskumeneko zerbitzu finkatu gabeetarako 14 M€-ko urteko diru funts baten bidez eta Sistema eta bere zerbitzuak Interneten bidez jendarteratzeko kanpainen bidez.

| | | |
|---|---|---|
| **6. Helmuga.** Enplegagarritasun zaileko pertsonei zuzendutako arreta optimizatzea, gizarte-zerbitzuen eta euskal enplegu-zerbitzuaren arteko koordinazio eta lankidetzaren bitartez. | **133** | Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu. |

- **6. Jarduera.** Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Protokoloa izenpetzea, gizarte bazterkeria jasateko arriskuan edo egoeran dauden pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko.

## Plangintza-tresnak

- **2017-2020 aldirako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa:** Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoaren bilera, besteak beste, Planaren jarraipena aztertzeko.
- **2018-2021 aldirako Etxebizitza Bazterkeriako Egoera Larrien Prebentzio eta Murrizketarako Euskal Estrategia (lehenago Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia zeritzona):** 2018-2021 aldirako Etxe gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia garatzeko erakundearteko Akordioa eta Hirugarren Gizarte Sektorearen partaidetzarekin erakundearteko jarraipen eta ebaluazio Batzordearen eraketa.

## Ekimen Legegileak

- **Diru Sarrerak Bermatzeari buruzko eta Gizarte Inklusiorako Legea aldatzeko lege proposamena:** Lege Proposamena Legebiltzarrean aurkeztu da.

# 2. HELBURUA

## Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 5 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 6 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

**2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 5 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 1 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | - |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Galdutako bizitza-urte potentzialak | (2017) 83,5 urte |
| • Obesitate-tasa | (2018) % 12,8 |
| • Nekazaritza ekologikoko eremuak | (2017) 4.244 ha |

| Euskadi Basque Country 2030 Agenda | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **7. Helmuga.** Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea.<br>**8. Helmuga.** Azpiegitura eta zerbitzu egokiak ematea landa-eremuei eta kostaldeari, haien bizi-baldintzak hiri-eremuetako baldintzekin parekatzeko eta horko biztanleria mantendu ahal izateko.<br>**9. Helmuga.** Lehen sektorea gazteagotzea, etorkizuneko berme gisa.<br>**10. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea, nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.<br>**11. Helmuga.** Nekazaritza ekologikoa eta haren transformazio-industria sustatzea. | **26**<br>**27** | Euskadiko lehen sektorea garatu.<br>Nekajaritzako elika gaiak eta jarduerak sustatu. |

- **7. Jarduera.** Nekazaritza Politika Komunean sartuta dauden zuzeneko laguntzen deialdia eitea, besteak beste, jokabide ekologikoak finantzatzeko eta gazteak lehen sektorean eta landa munduan finkatzea finantzatzeko. 47 M€.
- **8. Jarduera.** ELGAren "The building blocks: getting rural innovation systems, policies and governance right" lantegian parte hartzea., Erakunde publiko eta pribatuen sareko lanaren emaitza den ekintzaileei laguntzeko euskal ekosistema eta zenbait estrategia eta programaren aurkezpena: Landa Garapeneko Programa, banda zabala hedatzea, Gaztenek eta Geroa programak eta RIS3 Espezializazio Adimentsuaren programa.
- **9. Jarduera.** Ekoizpen sektorean IKT erabilera sustatzeari buruzko hainbat proiektu bultzatzea haren lehiakortasuna hobetzeko: aplikazio informatikoaren bitartez mahastiko gaixotasunak kudeatzea edo albaitariaren errezeta elektronikoa.
- **10. Jarduera.** Laborantzak eta teknologiak ekoizpen sektoreari egokitzeko proiektuak garatzea, klima aldaketak nekazaritzan dituen ondorioak mugatzeko, eta klima aldaketaren gaineko eragina eztitzeko nekazaritza jokabide egokiak sustatzea.
- **11. Jarduera.** Sektorearentzako transferentzia jardunaldia, NEIKER Tecnalia Ikerketari buruz, fitosanitarioen beharra % 50eraino murriztea lortzen baitu mahatsondoaren gaixotasunik ohikoenak.

## Plangintza-tresnak

- **Landa garapeneko OSOA programa:** Programa eguneratzea: Aurrekontu izendapenak berrikustea eta zenbait neurriren balioztapen irizpideak aldatzea.

# 3. HELBURUA

## Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 10 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 11 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 10 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 6 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | – |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Bizi-itxaropena jaiotze-unean | (2017) 83,5 urte |
| • Gastu publiko sanitarioa biztanle bakoitzeko | (2018) 1.733 € |
| • Minbiziaren baheketa-programak barne hartzen duen biztanleriaren % (bularreko, koloneko eta umetoki-lepoko minbizia) | · Bularreko minbizia: (2017) % 77,1<br>· Kolon eta ondesteko minbizia: (2017) % 72,3<br>· Umetoki-lepoko minbizia: DATUA ESKURATU GABE* |

* Programa 2018an hasi zen, 2020an lehenengo datuak.

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **12. Helmuga.** Osasun sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatzea. | **64** | Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu. |

• **12. Jarduera.** Osakidetzaren Osasun Aholkua (arreta ez presentzialeko zerbitzua): herritarrentzako erreferentzia, urteko 365 egunetako 24 orduetan, zuzeneko kontsulten/deien % 80ko konponbide tasarekin eta patologia desberdineko pazienteen berariazko jarraipen programen gorakadarekin.

| | | |
|---|---|---|
| **13. Helmuga.** Pertsonen erantzunkidetasuna osasunaren zaintzan sustatzea. | **66** | Osasunaren zainketan pertsonen erantzunkidetasuna sustatu. |

• **13. Jarduera.** Osasun-langileak prestatzeko estrategia, gaixotasunaren autokudeaketan pazienteak aktibatzeko tresnez jabetzeko. 298 prestakuntza jarduera eta 11.051 profesionalen partaidetza.

| | | |
|---|---|---|
| **14. Helmuga.** Ekitatea osasun-arretan bermatzea, garrantzi berezia emanez genero-ikuspegiari, kolektibo kalteberenei eta arretaren kalitateari. | **67** | Ekitatea babestea osasun arretan, arreta berezia jarriz genero-ikuspegia eta giza talde ahulenetan. |

• **14. Jarduera.** Osasunari eta osasun zerbitzuen erabilerari buruzko Osasun Sailaren ikerketa proiektuen deialdian berariaz sartu da genero ikuspegia balioztapen irizpide gisa. Ikertzaile nagusien % 56 baino gehiago emakumezkoak dira.

| | | |
|---|---|---|
| **15. helmuga.** Osasuna ingurune komunitarioan bultzatzea, jarduera fiskoa eta elikadura osasungarria sustatuz. | **69** | Osasuna sustatu ingurune komunitarioan. |

• **15. Jarduera.** Euskal herri-erakundeen Mugiment programa, osasun eta kirol zerbitzuen koordinazioa bultzatzen duena, sedentarismoari aurre egiteko.

| | | |
|---|---|---|
| **16. helmuga.** Osasun Publikoa bultzatzea, instituzioen arteko koordinazio eta lankidetzarako formulak ezarriz, eta koordinazio soziosanitarioa sustatzea. | **70** | Osasun Publikoa sustatu, eta zaintza-sistema integral bat abian jarri. |
| | **76** | Koordinazio soziosanitarioa bultzatu. |

• **16. Jarduera.** Herri erakundeen lan bateratua (Osasun Sailak eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, Aldundiak eta Eudel) Gobernantza Soziosanitarioari buruzko dokumentu bat lantzeko, 2017-2020 aldirako arreta soziosanitarioaren lehentasun estrategikoen esparruan.

| | | |
|---|---|---|
| **17. Helmuga.** Zainketa aringarrien arreta bultzatzea, eta baita gaixotasun kroniko, buru-gaixotasun eta gaixotasun arraroei zuzendutako arreta espezifikoa ere. | **80** | Zainketa aringarria bultzatu. Zainketa-aringarrien Plana zabaldu. |
| | **81** | Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei berariazko arreta eman. |

• **17. Jarduera.** Lehen arretako fisioterapia proiektu pilotua (Arabako ESIko Zabalganako LMAU), taldea eta heziketa kontuan hartzen dituena, eta ariketa fisikoa bultzatzen eta herritarrek euren osasun arazoak autokudeatzea bultzatzen dituena, prozesu kronikoak medikugabetzea lortzeko eta Gasteizko Adinekoen Udal Zerbitzuarekin koordinatzeko, adinekoengan osasunaren prebentzio eta sustapen ekintzetarako.

| | | |
|---|---|---|
| **18. Helmuga.** HIESa eta bestelako gaixotasun infekziosoak prebenitzea. | **73** | HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa. |

• **18. Jarduera.** 300.000 €-ko laguntzak irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko erakundeetarako, GIBaren, C hepatitisaren eta sexu bidezko infekzioen prebentzio programak garatzeko, talde kalteberenei zuzendutako ekintzei lehentasuna emanez.

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **19. Helmuga.** Adikzioak prebenitzea eta tratatzea, gazteei zuzendutako ekimenak indartuz. | **72** | Arreta berezia eman menpekotasun-arazoak dituzten pertsonei. |

• **19. Jarduera.** Deustuko Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren elkarlanarekin landutako "Drogak eta Eskola" inkestaren IX. edizioa aurkezpena.

| | | |
|---|---|---|
| **20. Helmuga.** Osasun- eta kirurgia-arreta eskaintza herrialde pobreetatik edo gerran dauden herrialdeetatik datozen adingabeei, baita aldi baterako harrera-egoeran dauden adingabeei ere. | **64** | Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu. |

• **20. Jarduera.** Aldi baterako egonaldian zehar, Euskadin aldi baterako Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa eta Txernobyleko 876 neska-mutikori eman zitzaien lehen mailako arretako osasun-laguntza, Bake-Oporrak bezalako programen bidez.

| | | |
|---|---|---|
| **21. Helmuga.** Osasunaren alorreko ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea. | **89** | Osasun-arloko ikerkuntza eta berrikuntza handitzea. Jakintzaren kudeaketa sustatu bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetza ere. |

• **21. Jarduera.** Ikerketa eta berrikuntzako Europako programetan parte hartzea; Kronikgune (kronikotasuna ikertzeko zentroa) partaide da Blueprint Digital Transformation of Health and Care for the Ageing Society lantzen, Europako Batzordearen Zahartze Aktibo eta Osasungarriko Europako Berrikuntza Elkartearen esparruan, eta BIOEF (Osasun Berrikuntza eta Ikerketarako Euskal Fundazioak) eta Osakidetzak datu base bat sortu, koordinatu eta kudeatzeko akordio bat izenpetu dute big data eta osasun publikoaren Europako MIDAS (Meaningful integration of data analytics and services) proiektuaren esparruan.

## Plangintza-tresnak

• **Elikadura Osasungarriaren Estrategia:** "Elikadura osasungarriaren aldeko ekimenak Euskadin" proiektuak urtebeteko lana bete du. Arlo honetako aurrerapenen berri emateko jardunaldi bat egin da, eta 20 enpresa edo erakunde baino gehiago eta 60 lankide baino gehiago atxiki zaizkiela azpimarratuz.

• **2017-2020 aldirako ildo estrategiko soziosanitarioak:** Lehendakariak , Osasun Sailak eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, Legebiltzarrean aurkeztu dute dokumentua.

• **EAEko adikzio plana:** Osasun sailburuak 2017ko Euskadiko mendekotasunen inkesta aurkeztu. Azterlanak drogen eta substantziarik gabeko beste mendekotasunen prebalentzia eta jokaerak, horien eboluzioa eta arazo horri buruz biztanleriak duen iritzia aztertu ditu, eta horrela planaren lehentasunak berretzi ditu.

• **2020ko Osasun Ikerketa eta Berrikuntzako Estrategia:** Estrategiaren esparruan, Europako 52 proposamen aurkeztu ziren eta Europako 44 proiektu egon ziren aktibo. Sistema informatikoen interakzioari dagokionez, osasun datuen berrerabilerari buruzko proiektua amaitu zen, proiektu horretatik sortu baitzen ikerketa talde eta/edo zentro desberdinetan lokalizatutako Datu Baseen Federazioa, eta dagoeneko eskura dago funtzionaltasun hori. Oro har, Integrazio Ardatzean, aurreikusitako ekintzen % 89an aurrerapena dago.

• **2015-2020 aldirako Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Iraunkorreko:** Urrian onartu zen Euskadiko zirkulazio istripuen biktimen Erregistroa sortu eta arautzen duen Dekretua.

• **Haur Gizentasunari Aurrea Hartzeko Estrategia:** Estrategia prestatzeko lantaldearen eraketa, parte hartzea metodologiatzat hartuta, OMEren aginduen ildotik, eta Elikadura Osasungarriaren Ekinbideekin eta erlazionatutako beste plan eta estrategiekin lotuta. 2018ko maiatzean lantaldearen lehen bilera egin da.

# 4. HELBURUA

## Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 7 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 8 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 2 |

**2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 7 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 6 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 2 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Eskola uztearen tasa % 8tik behera | (2018) % 6,9 |
| • Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen % | (2018) % 57,1 |
| • Bizitzan zehar ikaskuntzan parte hartu duten helduen % | (2018) % 12,7 |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **22. Helmuga.** Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko eskola inklusibo, bidezko eta berritzailea sustatzea. | **91** | Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egin, bikaintasunerantz aurrera egiteko. |

• **22. Jarduera.** EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetarako 750.000 €-ren diru laguntza, eskolako Agenda 21 programa garatzeko (iraunkortasunerako hezkuntza estrategia), Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Hezkuntza Sailaren baterako agindua.

| | | |
|---|---|---|
| **23. Helmuga.** Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetza maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan. | **92** | Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetza handiagoa lortu gure ikastetxeetan. |

• **23. Jarduera.** Ikastetxe publikoetan ikasle heldu berrientzako hizkuntza-indargarrien programazioa, eta itunpeko ikastetxeetan kulturartekotasunarako diru laguntza.

| | | |
|---|---|---|
| **24. Helmuga.** Eleaniztasuna eskolan bultzatzea. | **93** | Eleaniztasuna bultzatu eskolan. |

• **24. Jarduera.** Eleaniztasunerako Eleaniztasunerantz deialdiak. Unibertsitatez besteko irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoei, baina ez heziketa zikloei, deialdia egin zaie, 2018-2019 ikasturtean Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren barruan berrikuntza proiektuekin zerikusia duten prestakuntza jarduerak egiteko (L3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparruan). 1.502.052 €, bai eta itunpeko ikastetxeetarako ere 1.332.000 €.

| | | |
|---|---|---|
| **25. Helmuga.** Hezkuntza-azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea. | **96** | Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berritu eta egokitu. |

• **25. Jarduera.** Vital Fundazioaren eta Hezkuntza Sailaren arteko Akordioa Betoñuko Komentuaren gelak Euskadiko Goi-mailako Diseinu Eskolaren egoitza izateko, eta Tknika (Euskal Herriko Lanbide Heziketaren Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuko Zentroa) handitzeko.

| | | |
|---|---|---|
| **26. Helmuga.** Modernizazio teknologikoa irakaskuntzan bultzatzea. | **97** | Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatu. |

• **26. Jarduera.** 1.505.800 €-ren diru laguntzak, 2018-2019 ikasturtean gailu digitalak eskuratzeko, Euskadiko ikastetxeetako Lehen Mailako Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat.

| | | |
|---|---|---|
| **27. Helmuga.** Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartasuna). | **166** | Bake- eta bizikidetza-kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta. |

• **27. Jarduera.** Bizikasi Programa. Eskola jazarpenari aurre egiteko tresna. Prestatuak: berritzeguneetako 320 aholkulari, ikuskaritza zerbitzuko 80 kide eta Euskadiko ikastetxe publikoetako dinamizatzaile guztiak. Gainera irakasleen prestakuntza prozesua hasita.

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **28. Helmuga.** Enpresen beharrei eta pertsonen enplegagarritasunei erantzuten dien bikaintasunezko lanbide-heziketa finkatzea, laugarren iraultza industrialaren erronkak bereziki kontuan hartuta. | **100** | Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu. |
| | **102** | Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera egin eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu. |

• **28. Jarduera.** 2018-2019 ikasturtean IV. Plana aurrera eramatean eremu estrategikoetako jarduera ildoak garatzeko diru laguntzen deialdiak egin dira, Lanbide Heziketako heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuetarako. 1.817.000 €.

## Plangintza-tresnak

• **Hezkuntza Azpiegiturak Hobetzeko Plana:** 193 ekintza 2014-2018 aldian. Plan hau sortzez da malgua, une bakoitzeko beharretara egokitua, eta 45 M€-ren ekintza berriak gehitu ditu 2018an.

• **Unibertsitate Plana:** 2018ko abenduan, 2019-2022 aldirako Plan berria azkentzen, etorkizunerako bost giltzarrirekin: Gizartearekiko lankidetza, Bikaintasunezko ikerketa, Hezkuntza berriztatzea, Nazioartekotzea eta Komunitate unibertsitarioa.

• **STEAM Euskadi Hezkuntza Estrategia:** STEAM (Science, Technology, Engineering, Arts and Mathematics) Estrategiaren aurkezpena, bokazioak eta lanbide helburuak STEAM esparruan inspiratzeko, bereziki emakumezko ikasleenak, etorkizuneko erronken aurrean egoki prestatze aldera.

• **Kulturarteko Eskola Inklusiozko baten esparruan Ikasle Etorkina Artatzeko Plana:** II. Planaren jarraipena eta ekinbide berriak eranstea, ikasle etorkinen eskolaratzeari buruz egindako azterlan batetik abiatuta.

• **Euskadiko Irakurle Plana:** Planaren aurkezpena, planaren eduki guztiak jasotzen dituen eta erabili ahala aberasten joango den web berri batek lagunduta, Irakurgunea webak,.

• **2030eko Euskadiren Iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategia:** Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuak Estrategiaren berri eman zion Gobernu Kontseiluari, eta, horren bitartez, euskal gizarte zuzenago eta iraunkorrago bat lortu ahal izateko hezkuntza eraldatzaile bat garatzeko zimenduak finkatu nahi direla azaldu zuen. Bost urteko hiru ekintza planen bidez garatuko da 4.161.000 €-ko aurrekontuarekin.

## Ekimen Legegileak

• **Euskal Hezkuntzaren Lege egitasmoa:** Hezkuntzaren aldeko Akordiorako Oinarrien onarpena: elkarrekin egindako hausnarketa, euskal hezkuntza sistemaren oinarriak ezartzeko balioko duena, denboran iraungo duten printzipio egonkorrak ezartzeko, eta helburu handiguratsuagoak lortu ahal izateko erreferentzia bilakatuko dena, hala nola etorkizuneko Euskal Hezkuntza Legea.

• **Lanbide Heziketaren Legea:** Eusko Legebiltzarrean ekainaren 28an onartua. Onartu den Euskadiko lehen Lanbide Heziketaren Legea da. Lege honek erantzuna emango dio Laugarren Industria Iraultzari.

# 5. HELBURUA

## Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 3 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

**2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 4 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Genero-berdintasunaren indizea | (2015) 69,3 |
| • Batez besteko soldata. (genero-desberdintasuna soldatagatik) | Emakumeak: (2016) 23.428 €<br>Gizonak: (2016) 31.001 € |
| • Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko gizonen eta emakumeen % (genero-desberdintasuna prestakuntza mailan) | Emakumeak: (2018) % 62,2<br>Gizonak: (2018) % 51,8 |

| | | |
|---|---|---|
| **29. Helmuga.** Balioen aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko. | **145** | Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, garapen jasangarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik. |

• **29. Jarduera.** Gizonduz Programa (Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatua), gizonak berdintasunaren alde kontzientziatzea, parte hartzea eta inplikatzea sustatzera zuzendua. 60 ikastaro presentzial eta on line maskulinitateei buruz, eta 6 ikastetxek hartu zuten parte Gazteak berdintasunean 2.0 proiektu pilotuan, eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin esku hartzen duten profesionalei zuzendutako Jabetuz ikastaroaren edizio berria.

| | | |
|---|---|---|
| **30. Helmuga.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lanaren eremuan bultzatzea, soldata-diskriminazioaren aurka borrokatuz eta bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa uztartzearen alde eginez. | **146** | Lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu. |

• **30. Jarduera.** Berdintasunaren aldeko enpresen Bai Sarea sarearen batzarra, berdintasunerako lankidetza ikurra duten 63 erakundek osatzen dute, eta erakundeen berdintasun planek soldatako genero arrakala murrizten daukaten eragina biderkatzeko helburuz.

| | | |
|---|---|---|
| **31. Helmuga.** Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea. | **139** | Familien eta haurren aldeko ituna. |

• **31. Jarduera.** Concilia 30 programaren garapena. Ekonomia jarduerako sektore guztietako 30 euskal enpresari (lurralde historiko bakoitzean 10) bateratze neurriak ezartzea lantzeko aholkularitza eskaini zaie.

| | | |
|---|---|---|
| **32. Helmuga.** Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea eta genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetzea. NBEren Populazioren Funtsari laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuen Programa Bateratuan parte hartzeko (UNFPA-NBE). | **147** | Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazi. |
| | **157** | Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetu. |

• **32. Jarduera.** Emakunderen elkarlana Nazio Batuen Erakundeko zenbait agentziarekin, besteak beste, UNFPA eta NBE Emakumeak, indarkeriaren biktima diren emakume eta neskak artatzen funtsezkoak diren zerbitzuei buruzko Programa Globalean, zerbitzu horien gutxieneko estandarrei buruz munduan adostasunera heltzeko. 9.000 €-ren laguntza, segurtasun eta zerbitzu sozialen esparruko saio monografikoak eta NBEn elkarlanaren aurkezpena (CSW62).

## Plangintza-tresnak

• **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana:** VII Plana onartuta.

• **Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna:** Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Eudelek Ituna sinatu dute.

• **Euskadin Soldata Arrakala murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboa:** Jaurlaritzak Estrategia onartu du, eta bertan jomuga bat ezarri du, hots, 2030erako Euskadi soldata arrakal txikiena duten Europako 5 herrialdeen artean kokatzera iristea. Datozen urte bietarako Plan Operatiboak 4 jarduera ardatz, 20 gidalerro, 60 neurri konkretu eta 283 milioi euroko aurrekontu aurreikuspena ditu.

• **2018-2022 aldirako Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana:** Gobernu Kontseiluak onartua. Helburuen artean, hezkuntza politikak berrorientatzea eta inklusiozko eta hezkidetzazko eskola sistema bat eraikitzen sakontzea ditu.

## Ekimen Legegileak

• **Emakumeen aurkako Indarkeria ezabatzeko Legea:** 16/2018 DEKRETUA, urriaren 19koa, Lehendakariarena, Legearen aurreproiektua lantzeko prozedura hastea agintzen duena.

# 6. HELBURUA

## Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 3 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 2 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | – |

2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 3 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 2 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | – |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Ibaietako uraren kalitatea | ONA % 57,5* |
| • Osoko ur-hornidura | (2017) % 100 |
| • Uraren kostu unitarioa | (2016) 1,94 €/m³ |

* Aztertutako ibaietako ur-masa arabera

| | | |
|---|---|---|
| **33. Helmuga.** Urari buruzko politika egoki bat bultzatzea, haren kalitatea bermatzeko eta alferrikako galeraren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatzeko.<br>**34. Helmuga.** Uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako azpiegitura hidraulikoak garatzea eta gauzatzea, indarrean dagoen plangintzaren arabera. Uraren kanonaren bidez biltzen den diruaren % 5 hornidura eta saneamendurako lankidetza proiektuetara zuzentzea, garapen bidean dauden herrialdeetan.<br>**35. Helmuga.** 2015-2021 aldirako Plan Hidrologikoa berraztertzea. | **46** | Ingurune naturalaren kalitatea hobetu. |

- **33. Jarduera.** Laudio eta Amurrio udalerriei hondakin urak isurtzeko baimen berria emanez Nerbioi Garaiko kutsadura murrizteko plana lantzea, horrek barnean hartzen du kutsadura murrizteko programa bat, eta programa horrek Udala behartzen du zenbait neurri hartzera isuria hiri isuri baten parekoa izatea bermatzeko.
- **34. Jarduera.** Oiongo araztegia (ur zikinena) handitu eta modernizatzeko obrak, URAk eginak, uren tratamendu osoa bermatzen dute eta urtean 600.000 m3 hondakin ur arazteko ahalmena dute. 3,5 M€-ko aurrekontuari esker, ekaitz tanke batekin, IFAS teknologia duen erreaktore biologiko berri batekin eta usaingabetzeko sistema batekin handitu ahal izan dira instalazioak.
- **35. Jarduera.** Jabari publiko hidraulikoko obren ia baimen eta kontzesio guztien izapide elektronikoak herritarrentzat zabalik jarri dira.

## Plangintza-tresnak

- **2021eko Plan Hidrologikoa:** Plan berria lantzeko hasierako dokumentuen informazioa eta kontsulta publikoa.
- **Uholde Arriskua Kudeatzeko 2021eko Plana:** Uholde Arriskuaren Atariko Ebaluazio eguneratuaren kontsulta publikoa.

# 7. HELBURUA

## Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | |
|---|---|
| HELMUGAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 1 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 2 |

| 2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK | |
|---|---|
| JARDUERAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 2 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Energia berriztagarrien kuota azken energia-kontsumo gordinean | (2017) % 13,3 |
| • Intentsitate energetikoa (barne hartzen du kontsumoaren intentsitatea/BPG – azken intentsitate energetikoa-) | (2017) 71 tep/M€ |
| • Faktura energetikoa: kontsumitutako energiaren urteko kostua | (2017) 5.468 M€ korronte |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **36. Helmuga.** Gasaren alde egitea, trantsizio-energia gisa, energia berriztagarriak neurri handiagoan inplementatzeko bidean; eta nazioarteko konexio energetikoa sostengatzea gas eta elektrizitatearen horniduran.<br>**37. Helmuga.** Teknologiaren eta enpresen garapena sostengatzea energia-iturri berriztagarri eta jasangarrien erabilera sustatzeko.<br>**38. Helmuga.** Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko proiektuak bultzatzea.<br>**39. Helmuga.** Gasolioa garraiotik gero eta neurri handiagoan ezabatzea, garraioaren gasifikazioa (lehorrekoa eta itsasokoa) eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatuz. | **19** | Energia-politika lehiakorra eta jasangarria. |

- **36. Jarduera.** Arku Atlantiko eta Mediterraneo guztian gas natural likidotua itsasontzi batetik bestera aldatzeko lehen proba pilotua Bilboko portuan.
- **37. Jarduera.** Europako lehen laborategi flotagarria Bermeon uretaratzea; offshore eremu eolikoko enpresek han probatuko eta balioztatuko dituzte, ingurune eta denbora errealean, euren ikerketa prozesuetan lortutako produktu eta materialak. HAZITEK programa.
- **38. Jarduera.** Euskal Energia Erakundeak laguntza programetako diru baliabideak handitzea inbertsio hauetarako:
  - a) instalazioetan eta eraikinetan efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera suspertzeko.
  - b) hirugarren sektorearen efizientzia energetikorako eta energia berriztagarrietarako.
  - c) garraio eta mugikortasun efizienterako.
  - d) industria sektoreko efizientzia energetikorako eta energia berriztagarrien erabilerarako.
- **39. Jarduera.** Gasteizko Udalarekiko hitzarmena, BEA Bus Elektriko Adimentsuaren kotxetegien eraikuntza proiektua finantzatu eta egiteko, bai eta Amerika Latinoa biribilgunearena ere.

## Plangintza-tresnak

- **2030eko Euskadiko Estrategia Energetikoa:** 1Energiaren Euskal Erakundeak ikur bereizgarri bat aurkeztu du Estrategiaren helburuak lortzen laguntzen duten ekinbideak identifikatzeko, eta Donostialdeko, Oiartzualdeko eta Txingudiko udalek trantsizio energetikoarekin duten konpromisoa aitortu du.
- **Euskal Sektore Publikoaren Iraunkortasun Energetikorako Jarduera Plan Orokorra:** Gobernu Kontseiluan onartua, eraikin eta instalazioetako efizientzia energetikoan, energia berriztagarrietan eta energia alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuetan inbertsioak egitea aurreikusten du (89 M€ 2025 era arte).

## Ekimen Legegileak

- **Mugikortasun Iraunkorraren Legegaia:** Legegaiaren espediente administratiboa hasi da, aurretiazko onarpenerako Aginduaren bidez. Ondoren Hasteko Aginduarekin jarraitzeko arauzko kontsulta publikoa hasi da.

# 8. HELBURUA

## Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | |
| --- | --- |
| HELMUGAK | 7 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 4 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 3 |

| 2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK | |
| --- | --- |
| JARDUERAK | 7 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 3 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 3 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
| --- | --- |
| • Per capita BPG | (2018) 34.079 € |
| • Langabezia-tasa | (2018) % 9,97 |
| • Batez besteko soldata | (2016) 27.481 € |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **40. Helmuga.** Kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzea. | **2** | Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu. |

• **40. Jarduera.** Donostia UP Plana martxan jartzea, Donostiako 2018/2019 Enplegu Plana barnean hartzen duelarik (Udalak eta Jaurlaritzak batera daramaten estrategia), berrikuntza du giltzarri, eta hiru ardatzetan hezurmamitzen da: giza kapitala, enpresen lehiakortasuna eta lurralde kohesioa. 1.466.404 €.

| | | |
|---|---|---|
| **41. Helmuga.** Lanerako kualifikazio eta birziklapena bultzatzea, enpresekin, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetza estuan arituz, prestakuntza duala eta enpresa eta erakundetako praktikak bultzatuz. | **4** | Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu. |

• **41. Jarduera.** Basque Ecodesign Hub (Ihobe, NSF, MU, UPV-EHU eta Deustuko Unibertsitatea) zentroan 30 ikasleren enpresa praktikak ekonomia zirkularraren arloan. Ekinbide honek % 95eko enplegagarritasuna lortzen du (100.000 €)

| | | |
|---|---|---|
| **42. Helmuga.** Gazteen laneratzea bultzatzea eta ekintzailetzaren alde egitea. | **5** | Gazteen laneratzea sustatu. |
| | **15** | Ekintzailetzari lagundu. |

• **42. Jarduera.** Lanbidek 8,2 M€ erabili ditu euskal enpresetan talentu berria sartzea sustatzen, gazte langabeak kontratatzeko lau pizgarri lerroren bitartez: Lehen Aukera, Gazteen itzulera, Errelebo kontratua eta Atzerrian lantokiak dituzten euskal enpresek kontratatzea.

| | | |
|---|---|---|
| **43. Helmuga.** Gizarte-elkarrizketa eta langileen parte-hartzea euren enpresetan sustatzea, eta langile autonomoen arteko elkarlana ere bai. | **6** | Elkarrizketa soziala eta parte-hartzea sustatu. |

• **43. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak, Confebaskek, CCOOk eta UGTk egindako Akordioa, Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren barruan hiru aldeko elkarrizketa berbideratzeko eta elkar hartze soziala sendotzeko.

| | | |
|---|---|---|
| **44. Helmuga.** Enpresen Gizarte-erantzukizuna sustatzea. | **7** | Enpresen gizarte-erantzukizuna sustatu. |

• **44. Jarduera.** Etorkizun hurbilerako estrategiei buruzko Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren hausnarketa prozesua bukatu da, Enpresen Gizarte Erantzukizunak rol zentrala izango duelarik, eta Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren Ekintza Plana aurkeztu da Eusko Legebiltzarrean.

| | | |
|---|---|---|
| **45. Helmuga.** Gizarte-ekonomiako enpresak bultzatzea. | **9** | Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua. |

• **45. Jarduera.** Euskadiko gizarte ekonomia lan elkartuko kooperatibismoan munduko erreferentzia gisa agertu da Europako Ekonomia eta Gizarte Komitean Bruselako bileran.

**46. Helmuga.** Laneko osasuna, segurtasuna eta berdintasuna bultzatzea.

**10** Osasuna, segurtasuna eta berdintasuna sustatu lanean.

- **46. Jarduera.** Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak ikerketa proiektuetarako laguntzen deialdia egin du laneko segurtasun eta osasunaren arloan (500.000 euro).

## Plangintza-tresnak

- **Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Esparru Programa:** "2017ko jarraipen eta ebaluazio txostena", 2017ko inpaktu emaitzen txostena" eta "Euskadi 2020" Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Esparru Programa ezagutarazteko erabakia, eta Legebiltzarrera bidaltzeko agindu zen.
- **2015-2020 aldirako Laneko Osasun eta Segurtasunerako Euskal Estrategia:** 2015-2020 aldirako Laneko Osasun eta Segurtasunerako Euskal Estrategian txertatzen den "Elikaduraren eta Zuraren Balio Katerako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Estrategia Sektoriala" aurkeztu zen.
- **2020ko Erakundearteko Ekintzailetza Plana:** 2018 ekitaldiko Erakundearteko 1. Ekintzailetza Mahaia egin zen, eta Planaren 2017ko urteko Balantzea Eusko Legebiltzarrera bidali zen.

## Ekimen Legegileak

- **Euskal Enplegu Publikoaren Legegaia:** Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek Legegaia onartu zuten Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan, eta izapideen azken fasean sartu zen. Lege horretan, lehen aldiz berdindu da bikotea osatzen duten pertsona bien guraso baimenaren iraupena.
- **Kooperatiben Legegaia:** Jaurlaritzak Legegaia onartu zuen eta Eusko Legebiltzarrera bidali zuen eztabaidatu eta onartzeko.
- **Inklusiozko eta partaidetzazko enpresa eredu bat sustatzeari buruzko 85/2018 ez lege proposamena:** Eusko Legebiltzarraren osokoak aho batez onartuta.

# 9. HELBURUA

## Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 7 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 4 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 7 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 3 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • BPG industriala | (2018) % 24,3 |
| • I+Grako Gastua / BPG | (2017) % 1,85 |
| • Pertsonen mugikortasuna lurreko garraio kolektiboko zerbitzu publikoetan | (2016) 251.906 pertsona |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **47. Helmuga.** Garraio jasangarri multimodala sustatzea, arreta berezia zuzenduz trenbide-garraioari (abiadura handikoa, aldirikoa eta tranbia) eta plataforma logistikoei. | **37**<br>**38** | Euskadi, korapilo logistikoa. Euskal Y amaitu.<br>Trenbideko garraioa hobetu. |

• **47. Jarduera.** Mugikortasunaren eta logistikaren kate osoa biltzen duen kluster politika berriaren ondorio den Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Federazioaren aurkezpena.

| | | |
|---|---|---|
| **48. Helmuga.** Berrikuntzaren, fabrikazio adimenduna gidatzearen eta zerbitzu aurreratuak industrian txertatzearen alde egitea. | **12** | "Basque Industry 4.0" Euskal Industriaren aldeko Plan integrala. |

• **48. Jarduera.** Digital Grinding Innovation Hub zentroa jarri zen martxan. Zentro hori Digital Innovation Hub ekinbidean txertatuko da, Basque Industry 4.0 Estrategia gidatzen duen pilotatze talde publiko-pribatuak bultzatuta.

| | | |
|---|---|---|
| **49. Helmuga.** ETEak eta zailtasunak dituzten enpresen birmoldaketa sostengatzea. | **13** | ETEei lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu. |

• **49. Jarduera.** Gauzatu Industria 2018 Programa 28 M€-an, oinarri teknologikoa eta/edo berrikuntza oinarria duten ETEak sortu eta garatzeko.

| | | |
|---|---|---|
| **50. Helmuga.** Proiektu industrial estrategikoak sustatzea. | **14** | Proiektu industrial estrategikoak garatu. |

• **50. Jarduera.** EAEko industrialdeetan, enpresa parkeetan eta ekonomia jarduerako eremuetan Renove Programaren deialdia egin zen, 3,1 M€.

| | | |
|---|---|---|
| **51. Helmuga.** Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologiaren alde egitea, arreta berezia zuzenduz fabrikazio aurreratuari, energiari eta bio-zientzia-osasunari. | **16** | Ikerkuntza, Berrikuntza eta Teknologiaren aldeko apustua. |

• **51. Jarduera.** Europako Berrikuntza eta Teknologia Institutuak (EIT) Euskadi Fabrikazio Aurreratuko Europako Partzuergoaren nodoetako bat izatea erabaki du; nazioarteko partzuergo horrek hainbat herrialdetako 50 eragile biltzen ditu, besteak beste, Teknalia, IK4, Aernova, Grupo Mondragón eta ITP.

| | | |
|---|---|---|
| **52. Helmuga.** Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatzea. | **17** | Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratua garatu. |

• **52. Jarduera.** Industria sektoreko enpresen Kudeaketa Aurreratuko Ereduaren esparruan kudeaketa metodologiak ezartzeko EUSKALITen ekintza programa; 240 enpresa industrialetako 854 pertsona bertaratu ziren.

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **53. Helmuga.** Informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatzea, teknologien aukerak aprobetxatzeko lehiakortasuna –zibersegurtasuna barne sartuta-, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko. | **18** | Euskadi Europako erreferente bihurtu EIKTak aplikatzen, industriaren esparruan. |

- **53. Jarduera.** Zibersegurtasun industrialerako lehen laguntza programa jarri da martxan. 108 eskabide jaso eta 103 onartu dira, eta 1.003.161 €-rekin diruz lagundu.

## Plangintza-tresnak

- **"Basque Industry 4.0." 2017-2020 aldirako Euskadiren Industrializazio Plana:** 2018rako «Basque Industry 4.0.» Programa arautuko duen araudia onartu da (2.100.000€).
- **Euskadiren Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (RIS 3):** I+G+b laguntzeko programek zuzkidura handiagoa jaso dute 2018ko deialdietan, I+G aurrekontu publikoa urtez urte % 5 handitzeko konpromisoa betez.
- **Agenda Digital de Euskadi 2020:** 2018rako «Industria Digitala.» programa arautuko duen araudia onartu da, 2,263.557 €. Azaroan aurrekontua aldatzen da 2.528.557€tan.

## Ekimen Legegileak

- **Euskadiko Portuen Legegaia:** Onartua (2018/06/28).

# 10. HELBURUA

## Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| HELMUGAK | 7 | JARDUERAK | 7 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 7 | PLANGINTZA-TRESNAK | 7 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 | EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Desgaitasuna duten pertsonen enplegu-tasa | (2017) % 29,3 |
| • Biztanleria immigrantearen enplegu-tasa | (2018) % 55,6 |
| • Gini indizea | (2015) 25,8 |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **54. Helmuga.** Zahartze aktiboa eta belaunaldiarteko elkartasuna bultzatzea. | **135** | Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna. |

• **54. Jarduera.** “Euskadi Lagunkoia Sustraietatik” proiektua OME Osasunaren Mundu Erakundeak, nazioarteko 700 ekinbideren artean, adinekoentzat jokabide onen eredu hautatu du. Europako INTERREG, ITHACA (InnovaTion in Health And Care for All) proiektuaren esparruan, Euskadiren bazkide diren Europako beste zortzi eskualdeei aurkeztu zaie.

| | | |
|---|---|---|
| **55. Helmuga.** Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz. | **134** | Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetza estua finkatu. |

• **55. Jarduera.** Euskal telelaguntza zerbitzu publikoak, betiOn, bere ikuspegi soziosanitarioagatik eta pertsonagan zentratuta egoteagatik nazioartean erreferentzia denak, 50.236 erabiltzaile izan ditu, hau da, legegintzaldi amaierarako begiz jotakoa, 50.000, gainditu du. Besteak beste, betiOnek ZLTP Zaintzaileei Laguntzeko Telelaguntza Programa hartzen du.

| | | |
|---|---|---|
| **56. Helmuga.** Hirugarren Sektore Soziala sostengatzea. | **138** | Hirugarren Sektore Soziala babestu. |

• **56. Jarduera.** Elkarrizketa Zibilaren Mahaia finkatu da eta Sareen Sarea elkartearekin harreman erraza sendotu da. Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sareak biltzen ditu sare horrek.

| | | |
|---|---|---|
| **57. Helmuga.** Boluntarioen lana bultzatzea. | **137** | Boluntarioen lana bultzatu. |

• **57. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail, Sareen Sarea (hirugarren sektoreko sareen sarea), beste erakunde publiko batzuk (Emakunde eta Eitb) eta gizarte-eragileak lankidetzan aritu dira prestakuntza lantegiak hezkuntza arloko sentsibilizazio ekintzak eta boluntariotzari eta gizartean parte hartzeko beste moduei buruz datu kuantitatiboak izateko ikerketa proiektu bat egiteko.

| | | |
|---|---|---|
| **58. Helmuga.** Immigrazioaren aldeko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako Gizarte Ituna bultzatzea. | **140** | Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka. |

• **58. Jarduera.** Migraziorako Euskal Itun Sozialaren proposamena aurkeztu da, migrazioaren erronkari pluralismoaren, elkartasunaren eta beharraren ikuspegitik erantzun nahi dion dokumentua. Gizarte erakundeen eta herri erakundeen ekarpenak.

| | | |
|---|---|---|
| **59. Helmuga.** Dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboa, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erronka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...). | **165** | Aniztasuna eta elkartasuna positiboki kudeatu, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen diren erronken aurrean. |

• **59. Jarduera.** “Erlijioa aitzakia duen nazioarteko terrorismoaren aurkako Eusko Jaurlaritzaren Ekintza Plana” ekarpenez eta proposamenez hornitu ondoren, “Euskal islam komunitatearekin batera elkarbizitza suspertzeko ekintza plana” onartzea.

| 60. Helmuga. Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta. | 166 | Bake- eta bizikidetza-kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta. |
|---|---|---|

- **60. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak, UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin batera, Nazioarteko Kongresua antolatu du, XXI. mendean Giza Eskubideen Aldeko Erremintaren 70. urteurrenaren baitan, Giza Eskubideen aldeko erronkei buruz planteatzen diren erronkei buruz.

## Plangintza-tresnak

- **Etorkinen aldeko Euskal Estrategia:** 2020ko herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren arloko ekintza plana onartzea, eta horrela Estrategia eguneratzea.
- **Euskal Gaztedi Lankidearen Programa:** Programaren ebaluazioa.
- **2017-2020 aldirako Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategia:** Hirugarren Sektore Sozialaren Sustapenerako Estrategiaren Jarraipen Batzordea eratu da Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko hiru ordezkaririkin eta Eusko Jaurlaritzako hiru kiderekin.
- **2015-2020rako Zahartze Aktiboko Euskal Estrategia:** Nagusi Agenda, hau da, zahartze aktiboko Euskal Estrategian txertaturik adinekoekiko kogobernantza estrategia, lantzen amaitu da.
- **2020ko Elkarbizitzaren eta Giza Eskubideen Plana:** Planaren urteko jarraipen txostena, 2017ko kudeaketa eta betetze balantzea jasotzen duena.
- **Europako mugetan iheslariek jasaten duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun sozial, politiko eta instituzionala orientatzeko dokumentu esparrua:** 2017an iheslarien harrera eta integrazio arloan egindako ekintzen balantzearen eta 2018rako helburuen aurkezpena.
- **2018-2020 aldirako Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia:** Estrategia Ijito Herriaren Kontseiluaren Osokoari aurkeztu zaio, eta Gobernu Kontseilua jakinaren gainean jartzen da.

## Ekimen Legegileak

- **Gurtza Zentroen Legegaia:** Audientzia izapidea eman zaio EUDEL Euskal Udalen Elkarteari, izapidean dagoen lege aurreproiektuaren testuari alegazioak aurkez diezazkion.

# 11. HELBURUA

## Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| HELMUGAK | 7 |
|---|---|
| PLANGINTZA-TRESNAK | 8 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 2 |

**2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| JARDUERAK | 7 |
|---|---|
| PLANGINTZA-TRESNAK | 7 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 2 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Kriminalitate-tasa (lege-hauste penalak 1.000 biztanleko) | (2017) ‰ 38 |
| • Hirietako PM 10 kontzentrazioa | (2016) 15,9 µgr/m3 |
| • Hiri-hondakinen birziklapen-tasa | (2015) 161 kg/pertsona |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | Gobernu Programaren Konpromisoak | |
|---|---|---|
| **61. Helmuga.** Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea. | **47** | Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia. |

• **61. Jarduera.** Udalsarea2030 sareak "UDALSAREA Udalerrien Iraunkortasunerako Euskal Sareak Garapen Iraunkorreko Helburuei egindako ekarpena" txostena, euskal udalerriek GJHei egindako ekarpena aztertzen duena, argitaratu du.

| | | |
|---|---|---|
| **62. Helmuga.** PHiriko zaharberritze, biziberritze eta berriztapena sustatzea. | **48** | Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta –berritzea. |

• **62. Jarduera.** Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Otxarkoagan egingo duten Otxar Urban Lab hiriberritze eta eraikin zaharberritzeari buruzko ikerketa proiektua/laborategia martxan jartzea. Zenbatekoa: 7.152.000 €

| | | |
|---|---|---|
| **63. Helmuga.** Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea. | **142** | Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatu. |

• **63. Jarduera.** Babes ofizialeko 128 etxebizitzaren eraikuntza amaitu da Irungo Oinaurre auzoan.

| | | |
|---|---|---|
| **64. Helmuga.** Garraio publiko jasangarri eta intermodala bultzatzea. | **33** | Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatu. |
| | **34** | Mugikortasun jasangarriaren estrategia. |

• **64. Jarduera.** Bizkaiko Garraio Partzuergoak Euskotreni, BAT txartelaren erakunde kudeatzaileari, Barik NFC agiriaren erabilera lagatzea erabaki du, titularrek funtzionaltasun handiagoak izan ditzaten.

| | | |
|---|---|---|
| **65. Helmuga.** Kultura eta kultura-ondarea dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea. | **108** | Kultura dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira. |
| | **113** | Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaldu, bai eta haien eragin soziala ere. |

• **65. Jarduera.** Euskal Kultura Ondareari garrantzia emateko eta zabalkundea emateko 2018-2020 aldirako diru laguntzen deialdia egin da.

| | | |
|---|---|---|
| **66.Helmuga.** Euskararen erabilera sustatzea. | **116** | Euskararen gizarte-hazkundea finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza-gaitasuna hobetuz. |
| | **117** | Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzionaletan zabaldu euskararen erabilpena. |

• **66. Jarduera.** Euskaraldia gizarte ariketa egin da euskararen erabilera bultzatzeko eta eguneroko hizkuntza ohiturak aldatzeko. Erakunde publikoez gain, orotariko ia 200 erakundek (enpresak, herri erakundeek eta gizarte-eragileek) Euskaraldia sustatzaile sarea eratu dute.

| | | |
|---|---|---|
| **67. Helmuga.** Larrialdien aurreko prebentzio- eta alerta-sistema indartzea, baita herritarren autobabesa ere. | **153** | Larrialdiak prebenitzeko eta ohartarazteko sistema eta herritarren autobabesa indartu. |

- **67. Jarduera.** Larrialdietako APP berri bat abiarazi da jendearentzat oro har eta telefonoz komunikatu ezin diren pertsonentzat irisgarriagoa.

## Plangintza-tresnak

- **2040rako Lurralde Antolamenduko Gidalerroak:** Gidalerroen berrazterketa. 3. Fasea. Parte hartze prozesua.
- **Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda:** Agenda martxan jarri da; bide orri bat da, hiri eta herri inklusiozko, seguru, erresilientziadun eta iraunkorrak lortzeko, inor atzean utzi gabe.
- **2018-2020 aldirako Etxebizitza Plan Zuzentzailea:** jakinaren gainean jarri eta Plana Legebiltzarrera bidaltzea.
- **2030erako Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailea:** Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa Mugikortasun Eredu Iraunkor baten alde, eta aurreikusita dago 839 M€-ko inbertsioa guztira 2018 eta 2020 bitartean Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Sistema baterako.
- **2017-2020 aldirako Euskararen Agenda Estrategikoa:** Euskararen Agenda Estrategikoaren jarraipena, Eusko Legebiltzarraren Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean aurkeztea eta zenbait ebazpen onartzea.
- **2018-2020 aldirako Mugikortasun Elektrikoko Plan Integrala:** Plana onartzea, mugikortasun elektrikoa eragile publiko eta pribatuekin koordinatuta bultzatzeko, eta lurraldearen garapen sozioekonomikoari eta ezagutza sortzeari egiten dion ekarpena suspertzeko.
- **2015-2020 aldirako Bide Segurtasun eta Mugikortasun seguru eta iraunkorraren Plan Estrategikoa:** Euskadiko zirkulazio istripuen biktimen erregistroa sortu eta arautzen duen dekretuaren onarpena, eta 2018ko ezbehar tasaren behi-behineko balantzearen aurkezpena.

## Ekimen Legegileak

- **Euskal Kultura Ondarearen Legegaia:** Izapidean.
- **Mugikortasun Iraunkorraren Legegaia:** Legegaiaren espediente administratiboaren hasiera, aurretiazko onarpen Aginduaren bidez. Egin behar den kontsulta publikoa egin da.

# 12. HELBURUA

## Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 4 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | – |

2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 5 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | – |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Azken energia-kontsumoa | (2017) % 96 |
| • Materialen etxeko kontsumoa | (2016) 9,2 t |
| • Biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinen ratioa | (2015) 161 kg/biztanle |

| | | |
|---|---|---|
| **68. Helmuga.** Ekonomia zirkularraren alde egitea. | **42** | Ekonomia zirkularra bultzatu. |

• **68. Jarduera.** Ekonomia Zirkularrari buruzko lantalde teknikoaren lan saioak Udalsarea2030 esparruan, 20 bat erakunderen partaidetzarekin; nabarmentzekoa da eskualdeko erakunde askok hartu dutela parte, Garapenekin eta zenbait udalerrirekin batera.

| | | |
|---|---|---|
| **69. Helmuga.** Ingurumen aldetik eredugarria den administrazio publikoaren konfigurazioan aurrera egitea. | **45** | Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatu. |

• **69. Jarduera.** Kontratazio publikoan bizi zikloaren kontzeptua erabiltzeko proiektu pilotua, eta Eusko Jaurlaritzaren erosketa eta kontratazio publiko berdearen programaren talde bultzagilearen sorrera.

| | | |
|---|---|---|
| **70. Helmuga.** Informazio azkar eta eraginkorra eskaintzea kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen | **32** | Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua. |

• **70. Jarduera.** Kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa emateko berariazko kanpainak abiaraztea zenbait sektoretan (etxeko salmentak, Interneteko salmentak...) eta kontsumo arduratsua sustatzeko informazio formatuen egokitzapena.

| | | |
|---|---|---|
| **71. Helmuga.** Turismo jasangarriaren bikaintasuna sustatzea. | **28** | Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu euskal turismo jardueran. |

• **71. Jarduera.** Ekoturismoa eta Turismo Aktiboa: lurraldeaz gaindiko zenbait lan mahai abiaraztea, hala nola Hego Euskal Herriko bide berdea eta Euskadiko Ekoturismo mahaia, eta zenbait ekinbideren garapena: Euskadi bizikletaz eta oinez gida. Arabako Lautadako ibilbide zikloturista, Urdaibaiko ibiltaritza mapa erreserbako patronatuarekin batera, eta presentzia Delta Birding Festival azokan.

## Plangintza-tresnak

• **2020ko Euskadiren Hondakin Kudeaketa eta Prebentzio Plana:** Plana garatu da lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako 4/2015 Legea garatzeko dekretu proiektuaren bidez. Aurretiazko kontsulta publikoa.

• **2030erako Euskal Herriko Ekonomia Zirkularraren Estrategia:** Onartua.

• **2020rako Euskal Herriko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa:** Ihobe sozietate publikoarekin elkarlanean, jardunaldi tekniko bat egin da Programari atxikitako erakundeei aitortza publiko bat egiteko.

• **2017-2020 aldirako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana:** Sektorean efizientzia energetikoarekiko eta energia berriztagarriekiko konpromisoa berritu da.

• **2018-2020 aldirako Kontsumobide Plan Estrategikoa:** Plana Legebiltzarrean aurkeztea, 2017 urteko jarduera balantzea eta etorkizunerako ekintza ildoak.

# 13. HELBURUA

## Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 5 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 1 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

**2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 5 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 1 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztea | (2017) % 96,3 * |
| • CO2 baliokidearen kontsumoa kW/ordu bakoitzeko | (2017) 296 gr CO2/kWh |
| • Airearen kalitatearen indizea | (2016) % 99,0 |

* Oinarrizko urtea 1990

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **72. Helmuga.** Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea.<br>**73. Helmuga.** Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa sustatzea.<br>**74. Helmuga.** Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.<br>**75. Helmuga.** Eraikuntza jasangarria, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatzea.<br>**76. Helmuga.** Klima-aldaketari egokitzeko ikuspegia integratzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onesteko prozesuan eta lurralde- eta hiri-plangintzako tresnetan. | **41** | Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatu. |

• **72. Jarduera.** EAEko Administrazioak klima aldaketa eztitzeari eta hartara egokitzeari buruzko ikerketa lagundu du Uhinak 2018 Klima Aldaketari eta Kostaldeari buruzko mugaz gaindiko III. Biltzarrean.

• **73. Jarduera.** Alogereko etxebizitza publikoen efizientzia energetikoa hobetzeko eta energia kontsumorik ia batere gabeko bizilekuak lortzeko Plana. Ekinbidea 7.000 etxebizitza baino gehiago hartzen dituen 137 bloketan ekiteko da.

• **74. Jarduera.** Argindar % 100 berriztagarria edo efizientzia handiko kogeneraziokoa kontratatzea baimentzen da. Zenbatekoa: 22,2 M€.

• **75. Jarduera.** Ekodiseinu proiektuetarako laguntzak, Euskal Herriko industrien ahalmenak indartzeko, eta bereziki ETEenak, ekonomia zirkularrago batekin erlazionatutako produktuak/zerbitzuak garatzeko, eta beren produktuek ingurumen inpaktu txikiagoa izateko, eta Basque Ecodesign Hub zentroaren deialdia, HUBeko gazteen laguntzaz egindako proiektu ekoberritzaileak garatu nahi dituzten enpresen elkarlanerako.

• **76. Jarduera.** KLIMA 2050 Euskal Herriko Klima Aldaketarako Estrategia LAG Lurralde Antolamenduko Gidalerroetan txertatzeko lana, klima aldaketaren Euskadirako egoerak irudikatuz eta proiekzioak eginez, klima aldaketaren kausak eta ondorioak barne eta inpaktuen eta kalteberatasunaren kartografia tematikoaren bidez lurralde eremuaren eta hiri plangintzaren egokitzapena ere barne hartuz.

## Plangintza-tresnak

• **Klima 2050, 2050erako Klima Aldaketarako Estrategia:** Klimarekiko Ekintzaren Munduko Gailurrean parte hartzea, San Franciscon, Kalifornia, KLIMA 2050 Estrategiaren betetze mailan egindako aurrerapenari dagokionez, eta Euskadin abian jarritako egokitzapen eta eztitze ekintza konkretuei dagokienez.

## Ekimen Legegileak

• **Euskal Herriko Klima Aldaketaren Legegaia:** Legegaiaren espediente administratiboa hasti da Euskal Herriko Klima Aldaketaren Lege-aurreproiektua landu aurreko kontsulta publikoaren Aginduz.

# 14. HELBURUA

## Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | 2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK | |
|---|---|---|---|
| HELMUGAK | 4 | JARDUERAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 2 | PLANGINTZA-TRESNAK | - |
| EKIMEN LEGEGILEAK | - | EKIMEN LEGEGILEAK | - |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Azaleko ur masen kalitatea | (2017) % 58,4 |
| • Bainu-eremuetako uraren kalitatea | (2017) % 85 |
| • Ibaietako uraren kalitatea | (2017) % 57,5 |

| | | |
|---|---|---|
| **77. Helmuga.** Arrantza jasangarri eta lehiakorra sustatzea.<br>**78. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean. | **26** | Euskadiko lehen sektorea garatu. |

• **77. Jarduera.** AZTIk zenbait proiektu zientifiko garatu ditu izadiaren baliabideen eboluzioa eta kudeaketa iraunkorra ezagutzeko, eta euskal arrantza sektorerako interesgarriak diren arrantza lekuak kudeatzeko neurriak ezartzen diren Batzorde zientifikoetan parte aktiboa hartu da.

• **78. Jarduera.** AZTIren ikerketa ozeanografikoko lanaren aitortza, EuroGOOS ozeanoen behaketarako Europako sisteman eskubide osoko kide egin baitute; UNESCOk munduko itsas politika zientifikoa oinarritzen duten datu zientifikoen koordinazioa eta zabalkundea jagoteko sorturiko Gobernuarteko Batzorde Ozeanografikoko (IOC) Ozeanoak Behatzeko Munduko Sistemaren (GOOS) Europako osagaia da EuroGOOS.

| | | |
|---|---|---|
| **79. Helmuga.** Lehorretik itsasora doazen isurketen kudeaketa jasangarria. | **46** | Ingurune naturalaren kalitatea hobetu. |

• **79. Jarduera.** Lurretik itsasora isurtzen diren isurketen kontrola areagotzea, saneamendu-sareen gainezkatzea, isurketak eskualdeko saneamendu-sistemetara konektatzea bultzatzea eta bainatzeko uren gaineko eragina minimizatzea barne hartuz.

| | | |
|---|---|---|
| **80. Helmuga.** Kostaldea babestea lurzoruaren erabilerak arautzearen bidez. | **47** | Lurraldearen oreka.<br>Lurralde-plangintza eta estrategia. |

• **80. Jarduera.** Batez ere bizileku erabilerako eraikingintzako eta hiri eta landa multzoetako errehabilitazioaren erregimen juridikoaren dekretu proiektua. Aurretiazko kontsulta publikoa. Ondorioak.

# 15. HELBURUA

## Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 6 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 4 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 6 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 6 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 1 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera | (2017) % 11,3 ha |
| • Zuhaitzez estalitako natura-guneen dentsitatea | (2016) % 67,29 ha |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **81. Helmuga.** Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea lurzoruaren erabilerak arautzearen bidez. | **47** | Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia. |

- **81. Jarduera.** Lurralde Antolamenduko Gidalerroen (LAG) behin-behineko berrazterketa onartu da, ingurune fisikoaren eta azpiegitura berdearen antolamendua barruan hartzen duena.

| | | |
|---|---|---|
| **82. Helmuga.** Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumenaren babes eta kontserbazioan duten erantzunkidetasunean aurrera eginez.<br>**83. Helmuga.** Biodibertsitatea babestea.<br>**84. Helmuga.** Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu-planak garatzea. | **46** | Ingurune naturalaren kalitatea hobetu. |

- **82. Jarduera.** Erronka Garbia, ekitaldi iraunkorraren zerbitzua, Euskal Herrian ekitaldi jendetsuak antolatzen esku hartzen duten erakundeetan euren ekitaldien ingurumen inpaktua gutxitzeko ekintza eta hobekuntza etengabeko (ekin, neurtu, hobetu) konpromisoa suspertzeko. 2018an 40 ekitalditan aplikatua.
- **83. Jarduera.** Bioaniztasunaren ebaluazio eta jarraipen sistema baten garapena: Mintegi biogeografikoak eta MITECO (Trantsizio Ekologikoko Ministerioa) eta autonomia erkidegoak biltzen dituen lantaldea; ekosistema taldeen jarraipen sareak diseinatu eta ezartzea.
- **84. Jarduera.** 2021-2027 aldirako Natura 2000 Sarearen finantzaketarako Lehentasunezko Ekintza Esparrua lantzea.

| | | |
|---|---|---|
| **85. Helmuga.** Nekazaritza ekologikoa sustatzea.<br>**86. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea nekazaritza azpisektorean. | **26** | Euskadiko lehen sektorea garatu. |

- **85. Jarduera.** NEIKER-Tecnaliak klima aldaketari egokitutako nekazaritza jokaera ekologikoak erakusteko jardunaldi bat antolatu du.
- **86. Jarduera.** Ikerketa, garapen era berrikuntzarako laguntzen deialdia egin da nekazaritza eta arrantza sektoreetan. (1,6 M€).

## Plangintza-tresnak

- **2020ko Ingurumenaren Esparru Programa:** Sektore ekonomikoen eta euskal administrazio publikoaren ordezkarien aurrean aurkeztu zen IV. Esparru Programak lortutako emaitzen balantzea.
- **2020ko Geoaniztasun estrategia:** 75/2018 EBAZPENA, martxoaren 20koa, zeinaren bidez argitaratzen baita Geogarapen Euskal Kostaldeko Geoparkearen Kudeaketarako Elkartearekin sinatutako hitzarmena; hitzarmen horren bidez lan-ildoak ezartzen dira EAEko Geodibertsitate Estrategia-2020aren eta Euskadiko Biodibertsitate Estrategia-2030aren barruko jarduketak garatzeko.
- **2050erako lurzorua babesteko estrategia:** IHOBEk amaitu egin du EAEko lurzorua babesteko lehen estrategia lantzeko oinarri izango den dokumentua prestatzen.
- **Lurzoru Kutsatuak Kudeatzeko eta Lehengoratzeko Plana:** Lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako 4/2015 Legea garatzeko dekretu proiektuaren aurretiazko kontsulta publikoa.

- **Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala:** Nekazaritza eta abeltzaintza eremuen antolamendu kategoriak Planean ezartzen direnetara egokitu dira.
- **2015-2021 aldirako Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren:** Onarpena 2018ko urtarrilan.

## Ekimen Legegileak

- **Ondare Naturala Kontserbatzeko Legegaia:** 2018-06-06. Aurreproiektuaren informazio publikoa.

# 16. HELBURUA

## Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

Agenda Euskadi Basque Country 2030

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 10 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 8 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 2 |

2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 10 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 7 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | 2 |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Herrialdeko Gobernuarekiko konfiantza | (2018) % 67 |
| • Nazioarteko gardentasun-indizea | (2016) 100,0 |
| • Herrialdeko demokraziaren funtzionamenduari buruzko iritzia | (2018) % 59 |

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **87. Helmuga.** Bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta. | **166** | Bake- eta bizikidetza-kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta. |

• **87. Jarduera.** Zinexit Topaketak (elkarbizitzarako zinema erakusketa) laugarren edizioa egin du, aurten Giza Eskubideen Deklarazioaren 70. urteurrenari eskainia.

| | | |
|---|---|---|
| **88. Helmuga.** Administrazio Publiko ireki, parte-hartzaile, garden eta eraginkorra bultzatzea. | **60** | Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu. |

• **88. Jarduera.** Datuak trukatzeko NISAE nodo plataforma zabaldu da, sektore publikoko antolakundeetan paperezko ziurtagiriak ordezteko. Eusko Jaurlaritzak eta foro aldundiek bultzatutako erakunde elkarlaneko proiektua.

| | | |
|---|---|---|
| **89. Helmuga.** Kargu publikoen osotasuna segurtatzea. | **57** | Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu. |

• **89. Jarduera.** "Kargu publikoak dituztenek izan duten Legean ezarritako eginbeharren betetze mailari buruzko txostena" Legebiltzarrera bidaltzea.

| | | |
|---|---|---|
| **90. Helmuga.** Dibertsitate kulturalak eta arrazakeria zein xenofobiaren prebentzioak dituzten balio positiboez sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea. | **140** | Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka. |

• **90. Jarduera.** Euskadin, Espainiako Estatuan eta Europan migrazio erronkei erantzuteko proposamen multzo bat aurkeztu da; Migraziorako Itun Soziala eta erantzukizuna partekatzeko Share proposamena.

| | | |
|---|---|---|
| **91. Helmuga.** Segurtasun- eta polizia-zerbitzu publiko eraginkor eta hurbila sustatzea. | **148** | Segurtasun zerbitzuak eta Ertzaintza herritarrengana gerturatzen jarraitu. |

• **91. Jarduera.** Ertzaintzako Zerbitzuek bilera egin dute ijito komunitatearen ordezkari diren elkarteekin, Ijito Herriarekiko Euskal Estrategiaren esparruan erdietsitako helburuak lortzearen balantzea egiteko.

| | | |
|---|---|---|
| **92. Helmuga.** Sistema judizial moderno, azkar eta eraginkorraren alde egitea, eta adingabeentzako arreta judiziala garatzea. | **155** | Sistema judizial moderno, azkarra eta eraginkorra. |
| | **158** | Adingabeentzako arreta judiziala garatu. |

• **92. Jarduera.** Parisen egindako haur eta nerabeentzako Justiziari buruzko Munduko Biltzarrean Euskadiko Gazte Justizia eredua aurkeztea. Euskadiko Gazte Justiziako Zerbitzuaren esku hartzeen 1/3 bitartekaritza prozesuetan ebazten dira, eta 10etik 8tan arrakastaz amaitzen dira.

| | | |
|---|---|---|
| **93. Helmuga.** Gatazkak konpontzeko sistema alternatiboak bultzatzea. | **159** | Gatazkak ebazteko sistema alternatiboak bultzatu. |

• **93. Jarduera.** Bitartekaritza eta Gatazka Konponketako Espainiako Eskolak Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzari "auzitegi barruko bitartekaritza sustatzen izan duen ekarpen eta konpromiso handia" aitortzeko emandako Merezimendu Profesionalaren Domina

| Agenda Euskadi Basque Country 2030 | | Gobernu Programaren Konpromisoak |
|---|---|---|
| **94. Helmuga.** Indarkeriaren amaiera ordenatua sustatzea, ETAren armagabetze eta desegitea barne sartuta. | **161** | Indarkeriaren amaiera ordenatua. |

• **94. Jarduera.** Terrorismoarekin eta indarkeriarekin eragin den kaltearen aitortza kritikoa egin beharra errepikatuz Eusko Jaurlaritzak jendaurrean egindako hainbat agerraldi. Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakusteko aitortza instituzional eta sozialeko ekitaldia, goiburu honen azpian: "Fue injusto. Biktimak eta gizartea elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz", Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta.

| | | |
|---|---|---|
| **95. Helmuga.** Biktima guztiei zuzendutako egia-, justizia-, erreparazio- eta elkartasun-politikak ezartzea. | **162** | Egia-, justizia- eta erreparazio- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktima guztiekin. |

• **95. Jarduera.** 2018an Adi-adian Programa Unibertsitatera heldu zen. 16 saio egin dira hiru euskal unibertsitateetan: Deusto, Mondragon eta EHU/UPV. 2014 eta 2018 bitartean, 14.000 ikaslek baino gehiagok entzun dute biktima baten lekukotza zuzenean ikasgelan, 208 saiotan.

| | | |
|---|---|---|
| **96. Helmuga.** Laguntza ematea pertsona desagertuen ingurukoe. | **160** | Desagertutako pertsonen inguruneari lagundu. |

• **96. Jarduera.** Justizia Ministerioaren eta Espainiako Gurutze Gorriaren artean arlo humanitarioan eta gorpuen identifikazioaren arloan sinatu zuten elkarlan hitzarmena onartzeko atxikipen protokoloa

## Plangintza-tresnak

• **Elkarbizitza eta Giza Eskubide Plana:** Planaren urteko jarraipen txostena, 2017ko kudeaketa eta betetze balantzea jasotzen duena.

• **2020rako Gobernantza eta Berrikuntza Publikorako Plan Estrategikoa:** Planaren proiektuen jarraipena errazten da blog honen bitarteaz: http://www.euskadi.eus/blog/pegip2020/

• **2020rako Segurtasun Publikoko Plan Orokorra:** Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluak urteko bilera egin du Planaren jarraipena eta ebaluazioa aztertzeko eta 2017ko delitugintza estatistikak aztertzeko.

• **Justizia Administrazio Elektronikoa Bultzatzeko Plana:** Plana onartu da. (Gobernu Programaren Betetze Balantzea)

• **Herritartasunaren, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren arloko Ekintza Plana:** 2020rako V. Plana onartu da.

• **Gazte Justizia Plana (2014-2018):** IV. Planaren erdiko ebaluazioa Eusko Legebiltzarrean aurkeztu da.

• **Giza Eskubideen defentsarien Babeserako Euskal Programa:** Eusko Jaurlaritza Kolonbiara giza eskubideen jarraipena egitera doan ordezkaritza baten buru da, Programaren barruan Euskadin harrera egin zaien herrialde horretako pertsonen jarraipena egitea da helburua.

## Ekimen Legegileak

• **Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko legegaia:** 16/2018 DEKRETUA, urriaren 19koa, Lege aurreproiektua egiteko prozedura hasteko agintzen duena.

• **Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Partaidetzaren eta Gobernu Onaren Legegaia:** 2018. Izapidean.

# 17. HELBURUA

## Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko tresnak sendotzea

**Agenda Euskadi Basque Country 2030**

| | |
|---|---|
| HELMUGAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 4 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | – |

**2018. URTEAN GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE ESANGURATSUENAK**

| | |
|---|---|
| JARDUERAK | 4 |
| PLANGINTZA-TRESNAK | 4 |
| EKIMEN LEGEGILEAK | – |

| ADIERAZLEAK | DATUAK |
|---|---|
| • Giza Garapenaren Indizea | (2017) 0,916 |
| • Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzen duten gazteak | (2018) 99 gazte (81 emakumeak eta 18 gizonak) |
| • Garapenerako lankidetzaren laguntzaren % / BPG | (2018) % 0,429 |

| | | |
|---|---|---|
| **97. Helmuga.** Basque Country nazioartekotze-estrategia globala garatzea, lankidetza publiko-pribatuaren bidez. | **21** | Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean. |

• **97. Jarduera.** Euskal enpresek eskainitako berritasunezko irtenbideak darabiltzaten inbertsio publikoko esperientzia pilotuei laguntzeko Pilotu Programa.

| | | |
|---|---|---|
| **98. Helmuga.** Garapenerako lankidetza-politika sendotzea eta lankidetzarako tresnak estrategia espezifikoen bidez eguneratzea. | **168** | Garapenerako lankidetzari buruzko politika finkatu, eta euskal ankidetza-eredua gaurkotu. |
| | **169** | Ebaluazio-kultura sustatu, lankidetzari dagokionez. |
| | **170** | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartzea Garapenerako lankidetzaren politikaren diseinu eta kudeaketarako. |

• **98. Jarduera.** Heziketa Topaketaren bigarren edizioa egin da, hezkuntza munduko eta GKGEetako eragileen topaketa eta trukaketa gune bat da, metodologiei buruzko esperientziak elkarri erakusteko eta txertatzera begira ikaskuntzaka, orientabideak eta erreferentziak sortzeko. Edizio honetan herri erakundeetako, gizarte erakundeetako eta hezkuntza eragileetako 80 ordezkarik baino gehiagok hartu dute parte.

| | | |
|---|---|---|
| **99. Helmuga.** Garapenerako lankidetza-politika publikoen koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatzea.<br>**100. Helmuga.** Lankidetza-politika publikoei lotutako ekimen estrategikoak abiatzeko aliantzen garapena bultzatzea estatuan, europan eta nazioartean. | **171** | Lankidetza-politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan. |

• **Actuación 99.** Euskadiko lankidetzako eta uraren erakundeek erabaki dute indarrak batzea, Erdialdeko Amerikan uraren eta saneamenduaren arloko lankidetzako programa abian jartzeko, El Salvadorreko eta Costa Ricako erakunde pareekin antolatuta. Ekimena aitzindaria da; izan ere, Euskadik, El Salvadorrek eta Costa Ricak esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzen lankidetzan jardungo dute, eta prestakuntza-ekintzak eta lankidetza teknikoa garatuko dituzte. Gainera, programaren bidez, uraren eta saneamenduaren azpiegiturak hobetuko dira Anamorós eta Yucuaiquín (El Salvador) udalerrietan.

• **Actuación 100.** Eusko Jaurlaritzak parte hartu du PLATFORMAren Shaping a new generation of decentralised cooperation for enhaced effectiveness and accountability azterlanaren argitalpena koordinatzen, lankidetza deszentralizatuari buruz gobernuetan eta alderdi anitzeko antolakundeetan ulerpena indartzeko.

## Plangintza-tresnak

• **Euskadi Basque Country 2030 Agenda:** Onartu eta Lehendakariak jendaurrean aurkeztu du.

• **Euskadi Basque Country 2020 nazioartekotzeko estrategia:** Estrategiaren eguneratzea onartu da. Gainera 2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetarako Plana onartu da, azken honek zenbait laguntza programa jasotzen ditu, aurkeztutako proiektuen ponderazio irizpideen artean GIHekin lerrokatuta egotea barnean hartzen dutenak.

• **2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetza Plan Zuzentzailea:** 2018-2021 aldirako IV. Plana onartu da eta 2014-2017 aldirako III.a ebaluatu.

• **2018-2023 aldirako Garapenerako Euskal Lankidetza Agentziaren Ekintza Humanitarioko Estrategia:** 2018-2023 aldirako GELAren Ekintza Humanitarioko Estrategia abiarazi da.

EUSKADI

BASQUE COUNTRY